# Zinema laburrean

Ordizia 2012

## Uztailak 21, 22:15etan
## Herri Antzokian

# Filmak:

### Basque to the future



**Sinopsia:**
Etorkizuna, gaur eguna, Euskal Herria… nahasten da historian. Baina, historiako lehen denboraren marina euskaldun batek eraiki balu?

### Barkatu



**Sinopsia:**
Batzuetan, detaile hutsean geratzen da guztia.

### La puissance du temps



**Sinopsia:**
Anieren bizitzak erritmo azkarra du. Beti ari da presaka alde batetik bestera, baina emakume misteriotsu batengan aurkituko du bere arazoaren irtenbidea.

### Istmo



**Sinopsia:**
Gipuzkoako baserri batean, bikote bat: Angel eta Maria. Beraien egunerokotasunak jan die denbora. Ez dago komunikaziorik, begiradak, isiltasunak… Baina galdutako ibiltari batek apurtzen du etxeko giroa.

### Erroetatik mintzetan



**Sinopsia:**
17 urte pasa dira Juan Reguillagak istripu larri bat izan zuenetik. Hiru egun koma egoeran egon ondoren, sustraiek eman zioten bizia berri bat hasteko gogoa. Sustraiak bere bizitza dira, bertan ikusten baitu artea, betiere bere gurasoen laguntzarekin.

### Urrezko eraztuna



**Sinopsis:**
"Nire aitak ezkon eraztuna galdu zuen itsasoan. Beste arrantzale askok moduan kate batean, lepotik, gordetzen zuen, sare artean behatza ez galtzeko."

### Horma hutsen berridazketa




**Sinopsia:**
Dizebi eta bere lanak hartzen ditugu kontuan dokumental honetan. Graffitia izan da bere oinarri nagusia, baina bere burua ez du graffitilaritzat jotzen. Dizebi, geroz eta ospe handiagoa lortzen ari da kaleko artean, eta bere munduan murgiltzen lagunduko digu.

### Gartzela



**Sinopsia:**
Ana Martinarekin bizi da, bere amaginarrebarekin. Ez da bizimodu erraza. Psikologikoki txikituta baitauka. Baina Anaren eguneroko poza Mikelen bisita da, erosketak ekartzen dituen mutikoarenak. Baina Martinak dena kontrolpean izan nahi du.

### Ohartxoak



**Sinopsia:**
Zahartzaroa eta bakardadea atea jotzen hasten direnean... orduantxe hasten du Josunek bere bizitzako unerik gogorrena. Zenbait gertakariren harira, bidaia berri bati ekiten dio protagonistak.

### Eta amama?



**Sinopsia:**
Kontxiren heriotzak bazterrak nahasten ditu zaharren egoitzan. Urte askoan bertan bizi ondoren, Asunek bere herrira itzultzea erabakitzen du. Bidaia horretan alaba, suhia eta bere bi ilobak izango ditu bidelagun, baina autoan espero ez dituzten gorabeherak biziko dituzte.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

BANATU FILMAK
AITOR ARENAS SUSO
T + 34 617 819 726
M aitor@banatufilmak.com W www.banatufilmak.com

